



## ZIENTZIA ETA TEKNIKARAKO EUSKARA (ZENBAIT HIZKUNTZA-BALIABIDE)

MARTXEL ENSUNZA, JOSE RAMON ETXEBARRIA, JAZINTO ITURBE

Duela hogeit hamar urte, 1983an, Martxel Ensunzak ALFABETATZE TEKNIKOA idatzi zuenean, euskaldunok zenbait arlotan ditugun hutsuneak aipatu zituen hitzaurrean eta horiek estaltzeko erabiltzen ditugun erderakadak zerrendatu: “Zenbat da? Trescientos cuarenta y ocho pezeta balio dik horrek”, “Problema hori gaizki egin duk, zeren la integral de diferencial de x partido por la raiz de 1 menos x dos, ez baita heuk jarri duana, arco seno de x baino”, “Nik kalkulatuak sokaren tentsioa treinta y cinco con dos newtons izan da” ... Erdaraz egindako ikasketek utzitako aztarnak eta zenbait kontzeptu euskaraz adierazteko ohiturarik eza apuntatzen zituen Martxelek arazoaren errudun.

Igaro diren hogeit hamar urte hauetan gauzak aldatu dira, onerako, zalantzarik gabe. Baina zientzia eta teknika euskaraz egunero darabilenak baditu oraindik ere zalantzak. Eta horiek argitzeko aproposa da Martxel Ensunzak, Jose Ramon Etxebarriak eta Jazinto Iturbek idatzi eta UEU-k argitaratu duen **ZIENTZIA ETA TEKNIKARAKO EUSKARA** izeneko liburua.

Nola irakurri modu sistematikoan ikur eta zeinu bidezko adierazpen matematikoak? galderari erantzunez Martxel Ensunzak idatzitako tesia abiapuntutzat hartuta, tesiaren proiektio pedagogiko-praktikoa bilatzen du liburua, tesiaren emaitzen berri emanaz eta haren garapen praktikoa proposatuz.

Liburuak bi zati nagusi ditu. Lehenengoan Martxelen tesian landutako gai bat aztertzen da; bertan, zientzia eta teknikan etengabe agertzen diren ikur eta zeinu matematikoak hizkuntza arruntaren barnean txertatzean sortzen diren problemak analizatzen dira, eta ikur eta zeinu horien unibertsaltasuna frogatzen da. Bigarrenean, katalogo moduko eranskinak datoz, zeinetan euskara tekniko-zientifikoaren ezaugarriak aztertzeaz batera, lexiko-sorkuntzarako bideak, adjektibo erreferentzialen problematika eta hainbat problema konkreturen soluzio praktikoa ematen saiatu diren egileak, modu laburrean.

Nori zuzendutako liburua da hau?

- Zientzia- eta teknika-fakultateetako ikasleei, eurentzako testuliburua izan daitekeelako.
- Batxilergoko irakasleei, etengabe sortzen zaizkien zalantzak modu praktikoan argitzeko aukera eskaintzen duelako liburuaren bigarren zatiak, kontsulta-liburu modura antolatuta baitago, arlo jakinetako arazoak era ordenatuan aurkeztuz eta errezeta modura erabil daitezkeen soluzioak proposatuz.
- Ikerkuntzen zurrumbiloen sartuta dauden ikertzaileentzako, zalantza linguistikoak denbora laburrean konpon ditzaketelako kontsulta liburu honi esker.

Laburbilduz, zientzia eta teknika euskaraz egunero lantzen ari diren ikasle, irakasle zein iker-tzaileentzako liburua da, lana euskaraz egokiro egiteko lan-tresna erabilgarri eta praktikoa baita.

Fernando Garatea Alzola